

emaus

GIZARTE FUNDAZIOA

www.emaus.com
fundazioa@emaus.com



KULTURA, GIZARTERATZEA ETA KOMUNITATE-ERALDAKETA

IBAIERTZAK ZEHARKATZEA



J A I A L D I A

EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA

DERIO · DONOSTIA · GAMIZ
IRUN · PASAIA · ZARAUTZ

EUS

2025 PROGRAMAZIOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETZA ENPLEGU
GAILU
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO



GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

J A I A L D I A



DERIO · DONOSTIA · GAMIZ
IRUN · PASAIA · ZARAUTZ

NOMADA JAIALDIA 2025

Nomada Jaialdiaren hirugarren edizioa, partekatzen den taupadaren deiar modura ospatuko dugu, azaroan zehar Donostia, Derio eta Zarautz artean ibiliz. Emaus Gizarte Fundazioak bultzatuta, jaialdi honek kultura auzo eta plazetara eraman nahi du, bizitza partekatua, topaketa eta sorkuntza komuna bihurtuz. Espazio honetan, artistak, kultura-eragileak eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak elkartuko dira, elarrekin eraikitzen denean, kultura benetakoago eta eraldatzaileagoa dela erakusteko.

Nomada kultura eskubide, babesleku eta ondasun komun gisa ulertzeko nahitik sortu da. Pertsona guztiok kultura sortzeko, parte hartzeko eta horretaz gozatzeko gaitasuna dugula defendatzen da, gizarte inklusiboagoen, erresilienteagoen (moldakorragoen) eta irekiagoen aldeko apustua eginez.

Zinema, argazkilaritza, muralgintza, antzerkia, musika... hainbat lengoaia nahasten dira askotariko bizipenak eta begiradak islatzen dituzten jarduera ibiltari, ireki eta doako honetan. Edizio honetan ereite kolektiboa loratzen ari da, kultura egiteko beste modu batzuk erakusteko: horizontalagoak, sortzaileagoak, komunitarioagoak.

Azaroaren 4tik abenduaren 6ra, kalera ateratzeko gonbitea luzatzen dizuegu, parte hartzera, gozatzera eta Nomada Jaialdiaren proposamenetan inspirazioa eskuratzera gonbidatzen zaituztegu. Zatoz aniztasuna, sormena eta taldearen indarra ospatzen dituen bidaia kultural hau partekatzera!

14

ARTISTAK
ETA ERAGILEAK
KULTURALAK



10

ADIERAZPEN
ARTISTIKOAK

6

LURRALDEAK



8

EMAUS
GIZARTE
FUNDAZIOAREN
ZERBITZUAK



19

AGENTE
SOZIALAK



73

BAZTERKERIAN
DAUDEN
PERTSONAK



J A I A L D I A

NEOMADA

DERIO · DONOSTIA · GAMIZ
IRUN · PASAIA · ZARAUTZ

PROGRAMAZIOA

ZARAUTZ

AZA 28 - ABE 6

📍 MERKATU PLAZA

🕒 A-O 08:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00

L 08:00 - 14:00

ERAKUSKETA

Zarauzko Merkatu Plazak komunitatearekin elkarlanean sortutako lau sormen-prozesu biltzen dituen erakusketa kolektiboa hartzen du. Argazkiak, eskulturak, piezak eta sormen-lanak biltzen dituen ibilbidea da, Emaúsen eta Zarauzko Eguneko Zentroan sortutako begiradak, memoriak eta adierazpenak islatzen dituenak

ARGAZKILARITZA

Iruditu

Parte-hartzaile bakoitzaren Argazki-Egunkari pertsonalak sortzeko argazkigintza tailerrak, teknika mistoan. IRUDITU, Irudi-sorkuntza prozesu parte-hartzaile gisa planteatzen da, eta partaideak begirada propio eta kolektibo batetik beren ingurunea irudikatzen eta islatzen gonbidatzen dira. Argazkigintzaren eta beste irudi-teknika batzuen bidez, proiektuak aztertzen du nola irudiek nortasun, lotura eta lurralde ikusezinak azalaraz ditzaketen, eta, hala, bizi esperientziak kontatzeko tresna bihurtu. Prozesu hori Joseba Parronek gidatu eta dinamizatu du.

Prozesuaren amaieran muntaketa kolektibo edo erakusketa ibiltari bat gauzatuko da, 2025eko Nomada Jaialdiko programaren barruan integratuta, eta proiektua garatzen den lurralde ezberdinak lotuz.

ERAGILE: Joseba Parrón

PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Uba, Munto, Portuenea, Bidasoa, Zarautz**

ARTELANAK

Sormen Gunea

Sormen Gunea arakatze artistiko eta talde-sorkuntza prozesu bat da, parte-hartzaileak materialen, formen eta koloreen bidez adieraztera gonbidatzen ditu, egunerokoa sorkuntza-esperientzia bilakatuz. Dinamika plastiko erraz eta eskuragarri honetatik abiatuz, irudimena, lankidetzeta eta zerbait propioa nahiz partekatua eraikitze gaitasuna sustatzen da.

ERAGILE: **Sormen Eskola Zarautz**

PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Zarautz**

ESKULTURA

Hondartzen Memoria

Hondartzaren Memoria, ingurumen-sentsibilizazio eta sortze-prozesu kolektiboa da. Kroma Elkartearen laguntzaz burututako prozesu honetan, Gipuzkoako kostaldeko hondartzetan bildutako hondakinak material artistiko bihurtuz, itsasoko memoria kontatzen da. Parte-hartze tailerren bidez, partaideak, gizakiak ingurunean duen eraginari buruzko gogoeta egin, eta hondakinak historia komun baten lekukotzat berrinterpretatzen dituzte. Modu honetan, Zarautzen prozesuan sortu eta bizi izan dena ikusgai jartzen dugu erakusketa honetan.

ERAGILE: **Kromosoma Artisau Elkartea**

PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Zarautz**

TXOTXONGILOAK

Hariak

Hariak TOPIC (Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa) taldeak dinamizatu duen txotxongiloak taldean sortzeko prozesu bat da. Askotariko materialekin egindako eskuzko lanaren eta lan artistikoaren bidez, parte-hartzaileek beren bizipenak, emozioak eta munduan bizi izan diren moduak islatzen dituzten pertsonaiei forma ematen diete.

Prozesu horrek proposatzen du lotzen gaituzten hariak aztertzea — literalki eta sinbolikoki —, txotxongiloen eraikuntza eta manipulazioa erabiliz adierazpen, jolas eta komunitate-topaketa tresna gisa. Esperientzia hainbat erakusketen bidez itxiko da, publikoarekin elkarriketa zabaltzeko eta txotxongilo bakoitzaren atzean dauden bizi-istorioak partekatzeko aukera emanaz.

ERAGILE: **Topic / Matia Fundazioa / Fundación Goyeneche**

PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Donostia, Zarautz**

PROGRAMAZIOA

DONOSTIA

AZA 27

📍 SALA CLUB / VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
🕒 15:30 - 18:30

MUSIKA

Duintasun doinuak

Duintasun Doinuak, abesti baten talde-sorkuntza prozesu bat da, Emausek kudeatutako hainbat zentru eta zerbitzuetako parteideen (Bidasoa, Uba eta Portuenean Egunekeko Zentroak) eta musikaarloko profesionalen arteko topaketatik sortua. Parte-hartze tailerren bidez, parteideek erritmo, letra eta emozio propioak esploratuko dituzte, beren bizipenak duintasunaz, erresilientziaz eta komunitateaz hitz egiten duen konposizio partekatutik bihurtuz. Proiektu honen bidez, musika adierazpen, autoestimua eta elkartze topagune bihurtzen da, non ahotsek zeresana duten eta istorio bakoitza entzuna den.

Amaia Andinek dinamizatzen du ekimena, eta sortutako musika piezari VIDAS izena eman zaiona. Hau jaialdian zein beste hedapen gune batzuetan aurkeztuko da.

ERAGILE: **Escuela de Canto Amaia Adín**
PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Donostia, Irún, Pasaia, Bidasoa, Munto, Pasaia, Itxasetxea, Uba**

DANTZA

Dantza

Nomada proiektuan proposatutako prozesu musikalean sortutako VIDAS abestirako koreografia sortzean oinarritzen da DANTZA. Prozesu hau DAB Dantza Taldeak dinamizatuko du, eta aukera ematen du gorputz-adierazpena lantzeko eta abestia dantzatik eta mugimendutik irudikatzeko. Horretarako, parte-hartzaileak gonbidatu dira gorputz-adierazpena araka dezaten, hau herreminta egokia baita komunikatu, identitaterako eta elkartzeko. Era berean, koreografia kolektibo bat sortuko da, abestian agertzen diren duintasun-, aniztasun- eta komunitate-balioak islatuz.

Dantzak edonorentzat irekia eta sortzailea den topagune bat eskaintzen du, non mugimendua konexio emozional eta kolektiborako bide bihurtzen den, eta, amaitzeko, aurkezpen publiko bat gauzatuko da 2025eko Jaialdi Nomadaren barruan, arte partekatua eta gorputz guztien adierazpen askearen ospakizun gisa.

ERAGILE: **DAB dantza taldea**
PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Donostia, Uba, Munto**

NOMADA FESTA

Nomada Festan urte osoan zehar egindako baterako sorkuntza eta sormen-prozesuen amaiera ospatzen dugu. Nómadak berriro bildu gaitu parte-hartzaileen eta kultura-eragileen arteko lanetik sortu diren piezak aurkezteko: musika, argazkigintza, dantza, podcastak eta bidean forma hartu duten adierazpideak.

Muestra honek, batez ere, sarri oharkabean pasatzen diren bizipen eta ahotsei arreta jartzeko gonbita egiten die bisitariei. Giro festibo batean, parte hartu duten pertsona guztien esfortzua, sormena eta ausardia aitortu nahi ditugu. Izan ere, kultura zabaltzen, partekatzen eta elkarrekin egiten denean, inklusioa ere egiten da. Gaur hori ospatzen dugu: elkarrekin sortu duguna, eta oraindik sortzeko dagoena.

SOUND LAB

Soinu Laborategia

SoundLab, Unai Pelayok zuzendutako soinu-esperimentazioko laborategia da. Prozesuak gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gonbidatzen ditu soinuaren hizkuntza adierazpen- eta topaketa-tresna gisa ezagutzera, norberaren ahotsa, entzutea eta sorkuntza kolektiboa aztertuz. Tailer praktikoen, grabazioen, gidoi- eta edizio-ariketen bidez, parte-hartzaileek beren istorioak soinu-formatuan kontatzen ikasten dute, gizarte-irratietara eta topagune komunikazio alternatiboetara hurbiltzen diren bitartean.

Laborategia elkarlanean egindako zuzeneko emisio batekin amaitzen da. Bertan, sortutako piezak partekatzen dira eta prozesua "uhinetara jauzi egiteko" modu gisa ospatzen da.

ERAGILE: **Pelax**
PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Donostia, Uba, Pasaia**

ZINE KOMUNITARIOA

Zinema Tailerra

Ikertzek dinamizatutako ikus-entzunezko prozesu kolektibo bat, gizarte eta herritarrei zinema-lengoaia hurbiltzea proposatzen duen. Gidoi, kamera eta muntaia ariketen bidez, parte-hartzaileek beren istorioak mugimenduan dauden irudien bidez begiratzen eta kontatzen ikasten dute.

Tailerrak behaketa, enpatia eta narratiba pertsonala sustatzen ditu, aztertuz, zinema, identitatea eta komunitatea eraikitzeko tresna izan daitekeela.

ERAGILE: **Ikertze Audiovisual / Bekoz Beko / Entre Orillas / Bonbonera**
PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Itxasetxea**

PROGRAMAZIOA

DERIO

AZA 17

📍 GUREA ARETOA

PODCAST

Ahotsak

Bigarren urtez jarraian, eta Gatazkak irakasgaiaren markoan, Txorierri Institutuko ikasleekin podcastak sortzeko prozesu bat garatu da. Bertan, Batxilergoko 1. mailako 40 ikaslek parte hartu dute. Prozesuan zehar, ikasleek hainbat arazo eta erronka garaikide ikertu eta hausnartu dituzte, hala nola aporofobia, arrazakeria, bullyinga eta genozidioa, besteak beste. Sortutako podcastak lehiaketara aurkeztuko dira eta Derioko Gurea Aretoan egingo den itxiera ekitaldian aitortza jasoko dute.

ERAGILE: **Audiogela / Ganbara Gizarte Irratia**

Trakamatraka / Oscar Jareño

PARTE HARTZAILE: **Alumnado del Instituto de Txorierri**

AZA 17

📍 GUREA ARETOA

ZINEA

Anclados

Aritz Albaizaren gidaritzapean garatutako ikus-entzunezko sormen elkarlana, 2023an Derion eta Gamizen Emaúseko programetan abiatu zen lanari jarraipena emanez. Hirugarren edizio honetan, aurrekoetan bezala, parte-hartzaileek aukeratuko dute gaia, gidoiaren idazketan lagundu eta pantailan agertu, fikzioa beren errealitateak adierazteko eta partekatzeke tresna gisa erabiliz.

ERAGILE: **Aritz Albaizar**

PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Derio, Gamiz**

NOV 17

📍 LARRABARRI BASERRIA

GASTRONOMIA

Janhariak

María Arriera artistarekin elkarlanean, memoria eta lurraldearen arteko elkarrizketa sustatu den espazio bat dinamizatu da. Proiektuak Gamizko Emauseko pertsonak, Derioko Nagusien Etxeko emakumeak eta EDE Fundaziotik migratutako pertsonak biltzen ditu, kulturarteko eta belaunaldien arteko espazio bat sortuz.

Eguneroko elikagaietatik, aprobetxamendu-sukaldaritzatik, oroitzenetatik eta sukaldaritzako tradizioetatik abiatuta, istorioak eta jakintzak partekatuko ditugu. Entzumena eta sorkuntza grafikoa lagun ditugu prozesu honetan; janariaren balioa onartzen dugu (JAN) lotura eta komunitatea ehuntzen dituzten hariak (HARIAK) direla aitortzen dugu.

ERAGILE: **Arriera Escena**

PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Gamiz, EDE Fundazioa, Derioko Nagusien Etxea, Mañarikua**

DERIO

AZA 18

📍 DERIO - EGUNEKO ZENTROA EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA

MURALA

Graffiti

Emausen eta Derioko gazteen artean sormen prozesu bat garatu da mural kolektibo bat diseinatzeko. Ideiak, memoria eta kultura-ikurrak partekatze topagune batetik abiatuta, udalerriko loturak, aniztasuna eta bizikidetzat islatuko dituen irudi bat bilatu nahi izan da. Murala graffiti estilora egokitu da eta PAI Bitartean lokalaren atzealdean margotu da, eguneroko espazio bat nortasun propioa duen leku artistiko bihurtuz. Horrela, prozesu partekatu baten aztarna sinboliko eta material gisa geratu da, non artea topaketarako, adierazpenerako eta eraikuntza kolektiborako tresna bihurtu den.

ERAGILE: **GazteDerio / Mancomunidad Txorierri**
PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Derio, Gazte Derio**

AZA 18

📍 DERIO

MURALA

Argiak, hitzak eta ekin!

Derion hainbat eragilerekin garatutako parte-hartze prozesua, komunitate inklusibo eta eraldatzaile bat eraikitze funtsezkotzat jotzen dituzten elementuak identifikatzeko helburuarekin. Horretarako, partaideek honakoak definituko dituzte: gako-hitz bat, esaldi indartsu bat, irudiak eta kolore nagusiak. Emaiz horiek oinarri hartuta, Hibernando Estudio kolektibo artistikoak, konposizio bat sortuko du, zeinak herriko hainbat tokitan dauden energia-puntuetan islatuko dira.

ERAGILE: **Hibernando Estudio**
PARTE HARTZAILE: **Ganbara Gizarte Irratia / Haszten / Derioko Jai Batzordea / Untza Mendi taldea**

AZA 16/18/19/20/23

📍 GUREA ARETOA

TXOTXONGILOAK

Antzerkia

Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiarekin lankidetzan, antzerkia adierazpide gisa erabiliz, Derioko haurrekin partaidetza-prozesu bat gauzatu dugu, haien istorioak eta abenturak itzalen antzerkiaren bidez kontatu asmoz. Gainera, Valentziatik, Grezian eta Italiatik etorritako antzerki-konpainiak izango ditugu gure artean, beren ikuskizunak aurkeztuko dituzte eta txotxongiloak sortzeko tailerrak eskaini Derioko Emauseko Eguneko Zentroan.

ERAGILE: **Festival Internacional de Títeres de Bilbao / TX Teatro**
PARTE HARTZAILE: **Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: Derio, Gamiz, Derioko Herri Eskola**

AZA 21

📍 GUREA ARETOA

ZINEA

Sareak Zabaltzen

Sareak Zabaltzen, pertsonen, kolektiboen eta kultura-eta komunitate-eragileen arteko loturak eta lankidetzak indartzera bideratutako prozesua da. Topaketen, batera gauzatutako ekintzen eta elkarriketarako espazioen bidez, gai sozialak lantzen dituzten film laburrak aukeratu eta programatu dira, hausnarketa, empatia eta komunitatearen eraikuntza sustatzeko hainbat kultur gunetan proiektatuz. Saiok ondoren solasaldi bat eta inplikaturako pertsonen parte-hartze aktiboa biltzen dituzte. Aldi berean, elkarlanean grabatu diren hasierako eta amaierako iragarkiak Derioko Emauseko Ganbara Gizarte Irratiaren instalazioetan, artearen, komunikazioaren eta gizarte-erlaketaren arteko lotura indartuko dute.

ERAGILE: **Ganbara Gizarte Fundazioa / Trakamatraka**
PARTE HARTZAILE: **Apnabi Autismo Bizkaia / Lantegi Batuak / Gorabide / EDE Fundazioa / Mañarikua / Servicios Sociales para la Inclusión de Emaus Gizarte Fundazioa: PAI Bitartean / Gamiz**

-eMaUs
GIZARTE FUNDAZIOA

www.emaus.com
fundazioa@emaus.com



J A I A L D I A

NOBADA

DERIO · DONOSTIA · GAMIZ
IRUN · PASAIA · ZARAUTZ

2025 PROGRAMAZIOA

